

ikasmina:

**Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko  
ikastetari buruzko dokumentuak

# Maila profesionala, konpetentziak eta ikaskuntza

61. dokumentua

2018 urria

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Landa Ingurune eta  
Lurralde Orekako Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Medio Rural  
y Equilibrio Territorial

## AURKIBIDEA

1.	<b>Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
2.	<b>Pertsonen enpleguaren maila profesionala .....</b>	<b>4</b>
2.1.	Pertsonen lanpostuaren maila profesionala .....	4
2.2.	Pertsonen enplegua eta kualifikazioa .....	7
3.	<b>Prestakuntza, gaitasunak eta ikaskuntza.....</b>	<b>10</b>
3.1.	Pertsonen prestakuntza maila eta gaikuntza .....	10
3.2.	Pertsonen gaitasunen balorazioa .....	12
3.3.	Zergatik ikasten duten pertsonek .....	16

# 1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutzen oinarritutako ekonomia duen gizarte bihurtu nahi du, lehiakorra eta dinamikoa. Horretarako, ikaskuntzaren gizartea sortu beharra dago, ekonomia ekoizkorragoa garatu eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

Helburu hori du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentuak eta, gauzak horrela, ulertzen du ikaskuntza eta talentuaren garapena direla aurrerabide eta kohesio soziala eragiteko gai diren elementu estrategikoak, eta pertsonak, berriz, eredu berri horren giltzarriak. Hau da, behin talentuaren, antolaketaren eta teknologiaren arteko oreka egokia topatuta, modu iraunkorrean garatuko den lurraldea.

Ikuspegi horrekin, ezagutzak, bizi osoko ikaskuntzak gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko egunerokotasunean pertsonak egindako jarduera guztiak biltzen ditu; hala, bizitzako eremu guztiak barneratzen ditu: pertsonala, hiritarra, soziala edo profesionala.

Enplegua duten pertsonen dagokienez, hauen maila profesionala eta prestakuntza ea lanpostuarekiko egokia den aztertu ondoren lortu diren emaitzak biltzen dira dokumentu honetan. Gainera, lana garatzeko garrantzitsuak diren gaitasun zerrenda zabal bati dagokionez zer egoeratan dauden baloratu dute pertsonak, eta amaitzeko, ikasten jarraitzeko duten motibazioa aztertu da. Gai horietako bakoitzean pertsonaren profila hartzen da kontuan generoari, adinari eta eskuratutako ikasketa mailari dagokienez.


## 2. Pertsonen enpleguaren maila profesionala

### 2.1. Pertsonen lanpostuaren maila profesionala

#### Bi pertsonatik batek tarteko maila profesionaleko enplegua du

Pertsonen erdiak baino zertxobait gehiagok aipatu du bere lanpostua tarteko edo ertaina den kualifikazioari dagokiola (%57,3), pertsona talde batekiko erantzukizunak izan ala ez. Gainera, heren batek adierazi du bere enplegua maila profesional altukoa dela, eta hamar pertsonatik batek inguruk uste du baxua dela.

#### 1. grafikoa Egingako lanaren maila profesionala (%). Guztikoa eta generoaren arabera



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ez dago alde nabarmenik generoaren arabera. Hala, gizonen eta emakumeen erdiak uste du maila profesional ertaineko enplegua duela. Aipagarria da, dena den, ehuneko hori pixka bat altuagoa dela gizonen artean (%59,3) emakumeen artean


baino (%55,2). Kualifikazio baxuko enpleguan emakumeen presentzia handiagoarekin konpentsatzen da alde hori (%10,7 eta %13,5 gizonetan eta emakumeetan, hurrenez hurren).

**Adinduenen edo gazteenen artean, hiru pertsonatik batek adierazi du maila profesional altuko enplegua duela**

Maila profesionalaren arabera, lanean ari diren pertsonen banaketa antzekoa da kontuan hartutako lau adin-taldeetan; gauzak horrela, adin-tarte guztietan pertsonen erdiak edo gehiagok adierazi du bere enplegua maila profesional ertainekoa dela.

Hala ere, 25-34 urte artekoek (%38,7) eta 55-64 urte artekoek (%37,3) adierazi dute proportzio handiengan beren enplegua maila profesional altukoa dela. Eta, aldiz, erdiko adin-tarteak (35-44 urte eta 45-54 urte) maila profesional tartekoa dutela dioten pertsonen proportzio handiagoa dute (%59,1 eta %61,9).

**2. grafikoa Egindako lanaren maila profesionala (%). Adinaren arabera**



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia




### Eskuratutako ikaskuntzak baldintzatu egiten du lanpostuaren maila profesionala

Ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, erlazio argia dago eskuratutako ikasketak mailaren eta egindako lanaren maila profesionalaren artean. Horrela, goi mailako ikasketak izanik lanean ari diren pertsonen %50,7k dio maila profesional altuko enplegua duela. Ehuneko %11,1era jaisten da lehen mailako ikasketak dituztenen artean.

Era berean, bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen hiru laurdenek dio bere lanpostua maila profesional ertainekoa dela.

### 3. grafikoa Egindako lanaren maila profesionala (%). Ikasketak mailaren arabera




Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 2.2. Pertsonen enplegua eta kualifikazioa

### Hamar pertsonatik zortzik uste du daukan kualifikazioa egokia dela bere lanposturako

Lanean ari den biztanleriaren %82,2k uste du kualifikazio egokia duela egiten duen lanerako, eta ez dago alde nabarmenik emakumeen (%80,9) eta gizonen artean (%83,3). Hala ere, nabarmendu behar da hamar pertsonatik batek baino gehiagok uste duela gehiegizko kualifikazioa duela (%13,5). Ehuneko hori altuxeagoa dela emakumeen artean (%15,5) gizonen artean baino (%11,7).

### 4. grafikoa Kualifikazioaren/titulazio akademikoaren eta egindako lanaren arteko erlazioa (%). Guztikoa eta generoaren arabera




Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Gehiegizko kualifikazioaren ehuneko handiagoa gazteen artean

Kualifikazioaren/titulazio akademikoaren, egindako lanaren eta adinaren arteko erlazioari dagokionez, nabarmendu behar da ez dagoela alde nabarmenik: adin-talde guztietan nagusitzen da eskatutako kualifikazioa dutenen ustea. Hala ere, 35 eta 44 urte artekoak (%17,4) dira gehien bat gehiegizko kualifikazioa dutela diotenak; jarraian, 25-34 urte artekoak (%14,1), eta gutxien, berriz, adin gehienekoak (%10 eta %9,9, 45-54 urtekoak eta 55-64 urtekoak, hurrenez hurren). Kasu guztietan, beharrezko kualifikaziorik ez dutela esan dutenak oso gutxi izan dira (adin-talde guztietan %5 baino gutxiago).

**5. grafikoa** Kualifikazioaren/titulazio akademikoaren eta egindako lanaren arteko erlazioa (%). Adinaren arabera




Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hirugarren mailako ikasketak dituzten hamar pertsonatik bik uste dute gainkualifikatuak daudela**

Kontsulta egindakoen artean, lortutako ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da egiten duen lanerako gehiegizko kualifikazioa duela dioten biztanleriaren proportzioa. Hain zuzen ere, ehuneko hori lehen mailako ikasketak dituzten eta lanean ari diren pertsonen artean %5,7 izatetik hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen artean %20,4 izatera pasatzen da. "Doitu gabeko" talde horretarako, badirudi lan-merkatua ez dela gai haien kualifikazio mailara (edo eremura) egokitzen diren aukerak eskaintzeko.

**6. grafikoa** Kualifikazioaren/titulazio akademikoaren eta egindako lanaren arteko erlazioa (%), ikasketa mailaren arabera



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia





**Maila profesional ertaina duten hamar pertsonatik zortzik gutxienez uste dute haien kualifikazioa/titulazioa egokia dela**

Kontuan hartutako hiru maila profesionaletako bakoitzaren arabera kualifikazioa ea egokia den baloratzean eskuratutako emaitzek erakusten dutenez, maila profesionalak gora egin ahala, pertsonak gehiegizko kualifikazioa izatearen pertzepzioa jaitsi egiten da eta indartu egiten da honako ustea: behar bezalako kualifikazioa duten pertsona (ia) gehienek maila profesional altua dute.

Hala ere, kualifikazio maila baxuko enplegua duten pertsonen heren batek uste du gehiegizko kualifikazioa duela, baina kontuan izan behar da talde hori enpleguaren %12a soilik dela.

**1. taula Egindako lanaren maila profesionalaren eta kualifikazioaren/titulazio akademikoaren egokitasunaren arteko erlazioa (%)**

Biztanleria okupatua (25-65 urte)

	Uste duzu zure kualifikazioa dela...		
	Gainkualifikatua	Aproposa	Ez nahikoa
<b>Lanaren maila profesionala da...</b>			
• Baxua	37,0	57,4	5,6
• Tartekoa	13,7	80,9	5,3
• Altua	4,2	93,8	2,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia


# 3. Prestakuntza, gaitasunak eta ikaskuntza

## 3.1. Pertsonen prestakuntza maila eta gaikuntza

Lanean ari diren hamar pertsonatik zortzik uste dute haien titulazio akademikoak behar bezala islatzen duela haien gaikuntza maila edota gaitasun profesionalak

Lanean ari den biztanleriaren %78,6k uste du bere titulazio akademikoak behar bezala islatzen duela bere gaikuntza maila edota dituen gaitasun profesionalak. Ia ez dago alderik generoaren arabera eta gaitasun egokia izatearen pertzepzio hori geroz eta handiagoa da zenbat eta ikaskuntza maila handiagoa lortu.


7. grafikoa Zure titulazio akademikoak ahalmen edota gaitasun profesionalak behar bezala islatzen dituela uste al duzu?



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gainera, pertsonak uste dute titulazio akademikoak gaikuntza edota gaitasun profesionalak islatzen dituela. Iritzi hori adierazi dute hamar pertsonatik zazpik gutxienez kontuan hartutako adin-talde guztietan.

**8. grafikoa Zure titulazio akademikoak ahalmen edota gaitasun profesionalak behar bezala islatzen dituela uste al duzu?**



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 3.2. Pertsonen gaitasunen balorazioa

Pertsonen gaikuntzak barneratzen ditu ezagutza eta lortutako prestakuntza (oso lotuta daude eskuratutako ikaskuntza mailarekin), baina baita enplegagarritasunean garrantzitsuak diren ezaugarri ugari ere.

Europako Batzordeak<sup>1</sup> eta bereziki bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren eremuan<sup>2</sup> egindako zenbait lanek mugarritu eta eguneratu egin dute kualifikazioen edota gaitasunen aukera-sorta hori, honako hauei dagokienez:

- Oinarrizko ezagutzak (ahozko eta idatzizko komunikazioa).
- Ebazteko gaitasuna (pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea, informazioa aztertzea eta antolatzea, etab.).
- Aldaketara egokitzea (arintasuna eta egokitzeko gaitasuna, nola ikasi jakitea, ekimena eta ekintzailtza, etab.)
- Eta beste pertsona batzuekin lankidetzan aritzea, taldean lan egitea.

### Bi pertsonatik batek uste du bere gaikuntza altua edo oso altua dela proposatutako edozein gaitasunetan

Hala, nabarmendu beharreko lehenengo datua da bi pertsonatik batek uste duela bere gaitasuna altua edo oso altua dela laneko bizitzan garrantzitsuak diren adierazitako edozein gaitasunetan. Gainera,

- Gaitasunen balorazioaren emaitza den sailkapenak lehen postuan egokitzeko arintasuna eta gaitasuna eta sarean lan egitea jartzen ditu, pertsonen bi herenek adierazi baitituzte (%67,8 eta %63,9).
- Bigarren blokeak ahozko eta idatzizko komunikazioa eta pensamendu kritikoa biltzen ditu arazoak konpontzearekin batera (%58,9 eta %57,5), eta lanean ari diren pertsonen erdiak baino gehiagok adierazi du.

<sup>1</sup> [http://ec.europa.eu/education/lifelong-learning-programme\\_en](http://ec.europa.eu/education/lifelong-learning-programme_en)

<sup>2</sup> 2018ko maiatzaren 22ko Europako kontseiluaren gomendioa, ikaskuntza iraunkorrerako kompetentzia garrantzitsuei buruzkoa.

- Eta hirugarren blokean, bigarren taldetik oso gertuko ehunekoekin, informazioaren analisia eta antolaketa (%54,6), nola ikasi jakitea (%54,4), ekimena eta ekintzaitza (%53,8) eta irudimena eta jakin-mina (%50,7) daude.

**2. taula Laneko bizitarako prestakuntzaren balorazioa honako gaitasun hauekiko (%). Guztira**


Biztanleria okupatua (25-65 urte)

	Baxua / oso baxua	Baxua	Altua	Oso altua
<b>Bizitasuna eta egokitzapen ahalmena</b>	4,4	27,8	54,4	13,4
<b>Sarean elkarlana (pertsonean artean)</b>	6,6	29,5	54,6	9,3
<b>Ahozko eta idatzizko komunikazioa</b>	4,8	36,3	49,6	9,3
<b>Pentsamendu kritikoa eta arazo konponketa</b>	6,8	35,7	45,8	11,7
<b>Antolakuntza eta informazio analisia</b>	6,4	39,0	47,1	7,5
<b>Jakin nola ikasi</b>	5,7	39,9	47,3	7,1
<b>Ekimena eta ekintzaitza</b>	7,9	38,3	44,5	9,3
<b>Irudimena eta jakinmina</b>	11,9	37,4	39,0	11,7

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Emakumeen eta gizonen artean emaitzak nahiko antzekoak dira eta adierazi behar da emakumeek balorazio hobea dutela ahozko eta idatzizko komunikaziorako gaitasunetan (ehuneko +6,5 puntu) eta irudimenean eta jakin-minean (ehuneko +10,7 puntu).

**9. grafikoa Laneko bizitarako gaitasun hauen balorazioa (altua + oso altua) (%), generoaren arabera**



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Ez dago alderik gaitasunen balorazioan adinaren arabera

Pertsona bakoitzaren eta euren adin-taldearen arabera egindako balorazioan adierazitako sailkapena mantentzen da, eta alde nabarmenik gabe, nahiz eta agian aipa daitekeen balorazioa hobetu egiten dela adinak gora egin ahala.

Hala, biztanleria adinduenenak (55-64 urte) balorazio hobea du biztanleria gazteenak baino (25-34 urte) aztertutako ia gaitasun guztietan. Horrekin lotuta, alde handiena "ahozko eta idatzizko komunikaziorako" gaitasunean ikus daiteke. Izan ere, adin handieneko pertsonen %73,9k balorazio altua edo oso altua dute, aldiz, gazteenen artean, %58,9ra arte jaisten da (ehuneko -15,0 puntu) gaitasun altua edo oso altua dutenen artean.

Hala ere, gazteenek zertxobait gehiago baloratzen dute irudimenerako eta jakin-minerako gaitasuna (altua edo oso altua) (%50,7) adin nagusienekoek baino (%45,9). Aldiz, egokitzeko gaitasunari eta arintasunari dagokienez eta ekimenari eta ekintzaitzari dagokienez antzeko ehunekoak dituzte.

### 3. taula Laneko bizitarako prestakuntzaren balorazioa honako gaitasun hauekiko (%). "Altua" eta "oso altua" balorazioen batuketa, adinaren arabera

	Biztanleria okupatua (25-65 urte)			
	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte
Ahozko eta idatzizko komunikazioa	59,0	55,8	62,4	73,9
Antolakuntza eta informazio analisia	54,6	56,9	52,1	65,8
Pentsamendu kritikoa eta arazoaren konponketa	57,5	59,7	55,1	66,7
Jakin nola ikasi	54,4	53,4	55,5	55,9
Sarean elkarlana (pertsonek artean)	63,9	63,6	64,3	72,1
Bizitasuna eta egokitzapen ahalmena	67,8	68,2	67,3	67,6
Ekimena eta ekintzaitza	53,8	53,0	54,8	53,2
Irudimena eta jakinmina	50,7	45,6	56,3	45,9

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia


### Gaitasun hauen balorazioa igo egiten da ikasketa mailak gora egin ahala

Gaitasunen aukeraren balorazioa nabarmen hobetzen da pertsonen ikaskuntza mailak gora egin ahala. Hala, hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonek

proporzio handiagoan esan dute gaitasun altua edo oso altua dutela, lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen erantzunarekin alderatuta. Horrekin lotuta, alde adierazgarriena ahozko eta idatzizko komunikaziorako gaitasunean (ehuneko +41,6 puntu) eta nola ikasi jakitean (ehuneko +40,1 puntu) gertatzen da.

Ekimenaren eta ekintzaitzaren gaitasuna da bigarren mailako ikasketak (%57,2) eta hirugarren mailakoak (%50,0, ehuneko -0,2 puntu) dituztenen arteko balorazioetan ia alderik erakusten ez duen atal bakarra.

**10. grafikoa Laneko bizitarako prestakuntzaren balorazioa honako gaitasun hauekiko (%). “Altua” eta “oso altua” balorazioen batuketa, ikasketa mailaren arabera**



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### 3.3. Zergatik ikasten duten pertsonak

#### Ikasteko motibazio nagusia profesionala da

Ikasten jarraitzeko argudio nagusia motibazio profesionala da; horrekin lotuta, nire lana hobeto egitea edota nire aurreikuspen profesionalak hobetzea; enpresaz, lanpostuz edo lanbidez aldatzeko nire aukerak handitzea; lan bat eskuratzea edo nire negozio propioa sortzea dira gehien aipatutako argudioak.

Arrazoi pertsonalen artean, eguneroko bizitzarako erabilgarriak diren teknikak edo ezagutzak eskuratzea aipatzen da, edo interesatzen zaidan gai batean teknikak edo ezagutzak eskuratzea. Horiez gain, jendea ezagutzea/ondo pasatzea ere aipatu dituzte arrazoiaren artean.

Ikasten jarraitzen duten pertsona helduen bi herenek arrazoi profesionalengatik egiten dute (%68,7). Arrazoi hori da nagusi ordaindutako lana duten pertsonen artean (%84,1) eta jaitsi egiten da langabezia-egoeran daudenen artean (%57,7). Lan-merkatuan ez dauden kolektiboaren artean (erretiratuta), aldiz, arrazoi pertsonalak dira nagusi.

#### 4. taula Ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko arrazoiak (%). Lan-egoeraren arabera

Biztanleria guztia (25-65 urte)

	Guztira	Lana/ogibide ordainduarekin	Langabezia	Erretiratua	Ikaslea / Ez barneratua
<b>Arrazoi profesionalak</b>	<b>68,7</b>	84,1	57,7	7,3	30,8
<b>Arrazoi pertsonalak</b>	<b>31,3</b>	15,9	42,3	92,7	69,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia





Izenburua: Maila profesionala, kompetentziak eta ikaskuntza  
61. dokumentua, 2018ko urria

Koordinazioa eta gainbegiratzea: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.  
Gipuzkoako Foru Aldundia

Lantzea IKEI, research & consultancy S.A.

